

BEKA SISTEMA, 2022/23 IKASTURTEA

Beka sistemaren helburua

Ikastolen mugimenduan elkartasun kutxa aspalditik martxan dago arazo larriak dituzten ikastolak edota proiektu berriak laguntzeko. Lizeoan ere, aspaldi ezarri zen beka sistema eta honen helburua da, dirua ez izatea seme-alabak Lizeoan matrikulatzeko oztopoa eta oinarrizko kuota ordaintzeko arazoak dituztenei laguntzea. Horrela, Lizeoak kobratzen duen oinarrizko kuotan murrizketak aplikatzen dira ezarritako gehienezko diru-sarrerera baino gutxiago irabazten duten familiei.

Beka sistemaren baldintzak

- a) Laguntza honek 2 eta 18 urte bitarteko ikasleen oinarrizko kuotari eragiten dio. Kuota honen barruan sartzen dira: administrazioak ordaintzen ez duen hezkuntza-gastua, materiala, garraioa, ikasleen aseguruua.... Aldiz, ez dira diruz lagunduko liburuen erosketak, jangela zerbitzua, eguerdiko ekintzak, eskola kirola, irteera pedagogikoak...
- b) Beka laguntza eskatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da ezinbestean:
 - 2021 urteko errenta aitortpena, familiako tutorea(k) hartzen dituen. Egin ezean 2021eko diru sarrerak ziurtatzen duten agiria.
 - Gurasoen 2021 urteko Gizarte Segurantzaren prestazioen ziurtagiria
 - Gurasoen Gizarte Segurantzako lan-bizitza agiria
 - Gurasoen aurreko hilabeteko nomina baten fotokopia
 - Gurasoak bananduta daudenean, hitzarmen erregulatuak aurkeztu beharko da.
 - Udaleko bizikidetzak agiria
 - Gurasoek baimena ematen dute datu ekonomikoak alderatzeko.
- c) Familiako kide guztien diru-sarrerak gordinak kontuan hartuko dira, eta honako baremazioaren arabera aztertuko dira:

2 kide	3 kide	4 kide	5 kide edo +	Ordaindu beharreko kuota hileko eta ikasleko
0 – 14.000 €	0 – 15.400 €	0 – 17.500 €	0 – 19.600 €	15 €
14.001 € - 16.800 €	15.401 € - 18.480 €	17.501 € - 21.000 €	19.601 € - 22.520 €	27 €
16.801 € - 21.000 €	18.481 € - 23.100 €	21.001 € - 26.250 €	22.520 € - 29.400 €	50 €

- d) Lizeoko beka eskuratzeko derrigorrez Eusko Jaurlaritzako beka eskatu beharko du familiak.
- e) Lizeoko beka onartuz gero, Eusko Jaurlaritzako bekan Lizeoko kontu korrontea jarriko zaio ikasleari, eta materiala eta liburuengatik jasotako laguntza Lizeoarentzat izango da.
- f) Jarraipen batzordea: Lizeoaren beka sistemaren jarraipena egiteko batzorde bat osatu da.

BEKA BATZORDEA